

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3304

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 30ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez ematen eta ukatzen baitira arrantza eta akuikultura merkaturatzen duten enpresentzako laguntzak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko aginduaren babesean. Agindu horren bidez, Ukraina inbaditzearen ondoriozko testuinguru ekonomikoak asko eragindako elikagai-katearen sektoreentzako ezohiko laguntzen deialdia egin zen 2023. urterako.

Ikusi dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren III. kapituluaren babesean aurkeztutako laguntza-eskaerak. Agindu horren bidez, Ukrainako inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak asko eragiten dien elikadura-kateko sektoreentzako 2023ko ezohiko laguntzen deialdia egin zen. Horrez gain, eskabide horiekin batera aurkeztutako dokumentazioa ere aztertu da.

Kontuan hartu da Balorazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena. Batzorde hori deialdi-aginduaren 8. oinarria aplikatuta eratu eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2023ko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Balorazio Batzordearen ebazpen-proposamena egiteko kontuan hartu dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduan ezarritako onargarritasun-irizpideak.

Aurretik azaldutakoa aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei arrantza eta akuikultura merkaturatzen duten enpresentzako laguntzak ematea. Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren III. kapituluaren daude jasota, eta eranskin horretan zuzeneko laguntza gisa emandako zenbatekoa zehazten da. Zenbatekoa, guztira, 18.836,11 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean zerrendatutako eskatzaileei Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren VIII. kapituluaren jasotako pentsu-fabrikatzaileentzako laguntzak ukatzea, eta eranskin horretan laguntza ukatzeko arrazoia zehaztea.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraz, interesdunak gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko du beronen aurka, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 30a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

I. ERANSKINA

ARRANTZA ETA AKUIKULTURA MERKATURATZEKO LAGUNTZEN PROGAMAREN
KONTURA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Espediente-zk.	Sozietate-izena	IFZ	Laguntza (euro)
1	00009-CPA2023-61	Pescados Llorente, S.L.	B48966808	6.909,74
2	00010-CPA2023-61	Arrankoba 08, S.L.	B48119648	11.926,37

2024ko uztailaren 8a, astelehena

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Espediente-zk.	Baltzuren izena	IFZ	Ukoaren arrazoia
00001-CPA2023-61	San Pedro Arrantzale Kofradia	G48039002	Ez ditu betetzen 23. oinarriak: b) «Laguntzaren xede den ekoizpena EAEko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroan aktibo dagoen establezimendu batean egitea»; eta c) «Enpresa eskatzailea ekonomia-jardueren gaineko zergaren 754.4 epigrafean alta emanda egotea agindua argitaratu aurretik, eta 2022an jarduera frogagarria izatea». Erantzukizunpeko adierazpena, akatsak dituena (39/2015 Legearen 69.4 artikulua).
00002-CPA2023-61	Viveros San Anton, S.A.	A20084869	23. oinarria urratzen dute: c) «Enpresa eskatzailea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 754.4 epigrafean alta emanda egotea agindua argitaratu aurretik, eta 2022an jarduera frogagarria izatea»; eta d) «Jatorrian handizkariak izatea, Euskadiko lonjetan lehen salmentan erositako produktuak biltegitratzen eta izozten dituztenak».
00004-CPA2023-61	Salvador Aguirregomezcorta y Cía, S.A.	A48068571	Ez ditu betetzen 23.oinarriak: b) «Laguntzaren xede den ekoizpena EAEko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroan aktibo dagoen establezimendu batean egitea»; eta c) «Enpresa eskatzailea ekonomia-jardueren gaineko zergaren 754.4 epigrafean alta emanda egotea agindua argitaratu aurretik, eta 2022an jarduera frogagarria izatea». Ez du 347 eredua aurkeztu errekerimendua egin ondoren.
00005-CPA2023-61	Industria del Frío Auxiliar Conservera, S.A.	A48034482	Ez du betetzen 23.d) oinarria: «Jatorriko handizkariak izatea eta Euskadiko lonjetan lehen salmentan erositako produktuak biltegitratzea eta hartzea».
00006-CPA2023-61	Urlapesca, S.A.	A48107171	Errekerimenduaren ondoren, ez zituen aurkeztu 2022ko urteko kontuak, ezta ikuskatutako kontuak ere, eta, beraz, ezin izan zuen egiaztatu abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenak, betetzen ote zen.
00008-CPA2023-61	Congelados Sorymar, S.L.	B20630430	Prozedura adostuei buruz aurkeztu duen txostenean, kontuan hartutako eta adierazitako ordainketa-epeek ez dute betetzen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenak, ezarritakoa.